

Auto eraikitzaile handien arteko bategite zurrumurruak nahasmena ekarri dute

BMW eta Honda erosi nahi dituela gezurtatu du Estatu Batuetako Fordek

Agentziak / Detroit-Paris

Egunotan Detroiten (Estatu Batuak) egiten ari den auto azokan enpresa handien bategiteari buruzko zurrumurruak, informazioak eta ukatzeak asko ugaritu dira. Protagonista nagusia Ford amerikarra da, zenbait iturriren arabera, Alemaniako BMW eta Japoniako Honda erosi nahi dituelako. Hiru enpresek ukatu egin dute informazioa

BATEGITE eta erosketen buruzko zurrumurruek abiapuntua udazkenetik dator, orduan, ustekabean, Daimler Benz konpainia alemaniarak Estatu Batuetako Chrysler erosi baitzuen. Orduz gero, beste konpainia handiek beren konkurrentziari aurrea hartzeko elkartu egingo direla uste da autogintza munduan.

Zurrumurruek ozen bilakatu ziren joan den astelehenean, Fordeko zuzendaritzaren inguruko iturri batek esan baitzuen astea bukatu aurretik BMW eta Hondarekin bat egiteko asmoa zuela. Hiru protagonistek berehala gezurtatu zuten berria. «Informazioak zurrumurruek eta espekulazioak besterik ez dira. Horren atzetik ez dago egirik», esan zuen asteartean Jacques Nasser Fordeko presidentea Detroitetik irratian. «Hego haizea baino zaharragoa da istorio hori», ziurtatu zuen München BMWko bozeramaile batek. «Antzeko plan bati buruz ez dut entzun ere egin. Gainera, gure marka aspaldi garatu dugu bi konpainiok (BMWk



Ford Thunderbird berria, igandean, Detroiteko auto azokan.

eta Hondak) eta uste dut fusiorik gabe ere aurrera egingo dugula», aipatu zuen, berriz, Hiroyuki Shimojima Hondako zuzendariak.

Renault-Nissan bat eginik?

Baina Ford ez da izan zurrumurruek biktima bakarra. Londresko The Observer egunkariak kaleratu zuen astelehenean Frantziako Renaultek eta Japoniako Nissanek ere bat egiteko asmoa zutela. Egunkari horrek zioen, Nissan negoziatzen ari zen Fordekin eta Daimler-Chryslerekin ere.

Nissanek berehala gezurtatu zuen berria, baina ezin izan zuen eragotzi bere akzioak jaitea Tokioko burtsan. Renaulten, aldiz, ez zuten halako komentariarik aipatu ere egin nahi izan.

Kontzentrazioarako bidean

DAIMLER-BENZ eta Chryslerren arteko batasunak erakutsi egin zuen autogintza enpresak bat egiteko azken urteetan erakutsi duen joera beregorena iritsi dela. 80ko hamarkadan batik bat, Europako eraikitzaileen arteko kontzentrazioa sendotu egin zen. Volkswagenek Espainiako Seat eta Txekiar Errepublikako Skoda erosi zituen eta orain Rolls Royce bereganatu du. Italian, Fiat autogile ia guztien jabe egin da azken hamarkadetan.

Chryslerekin elkartuta, Daimler-Benzek auto txikiak saldu ahal izango ditu Europako eta berak (Mercedes batik bat) errazago salduko Estatu Ba-

tuetan. Estatu Batuetako eta munduko eraikitzaile handienak, General Motorsek, ez du halako problemarik. Japonian Isuzu eta Suzukiren bidez saldu du eta Europako Opel, Vauxhall eta Saabek merkatuaren zati handi bat badute. Ford da, orduan, Estatu Batuetako autogile erraldoien artean okerren zegoena. Estatu Batuetan inoiz baino gehiago saldu arren (3,9 milioi auto), Asian ez du ia lekunik eta Europako Fordek ez du zeregirik auto handietan. Ford Europako presidentea Jim Donaldsonen berak onartu egin du 1999 berregituraketan urtea izango dela, hots, kontzentrazioaren urtea.

Itsas merkantzien trafikoaren hazkundera geldotu dute Pasaiko portuko emaitzek

■ 1998ko lehen bederatzi hilabeteetan 97an baino %3,4 tona gutxiago mugitu ziren Pasaian

Erredakzioa / Donostia

ITSASO bidezko merkantzien trafikoaren hazkundera txikiagoa izan zen 1998ko lehen bederatzi hilabeteetan, 97ko epe berearekin alderatuz. Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko merkataritza ganbarek argitaratutako EAEko estatistika buletineko datuen arabera, Bilboko eta Pasaiko Portuetako merkantzia trafikoan %23,3ko hazkundera izan zen 1998ko urtariletik irailera bitartean, lehen sei hilabeteetako % 31,1a baino zertxobait txikiagoa.

Trafiko hazkunderaren geldotze honen arrazoa Pasaiko Portuak izan dituen emaitzak izan dira. Gipuzkoako portuan merkantzia trafikoak hazkundera okerragoa izan zuen 1998ko lehen sei hilabeteetan. Epe horretan, 2,8 milioi tona mugitu ziren, 1997an epe berean mugitu zirenak baina %3,4 gutxiago.

Euren merkantziak deskargatzeko Pasaiko portua erabili zuten itsasontziak 986 izan ziren, 1997an baino 116 gutxiago.

Bilboko portuan, berriz, iazko urtariletik irailera bitartean 19,5 milioi tona merkantzia mugitu ziren aurreko urtean baino %28,4 gehiago. Ontzi kopurua ere handitu zen, guztira 2.884 itsasontzi izan baitziren, 1997an baino 265 gehiago.

Burtsa


• J.B. ANDUEZA •

Txerri ehizan

MENDE hasieran, Bilboko Burtsaren inguruan, negozio on eta azkarra egiteari txerri ehizatzea deitzen zioten; malenkonia handirik gabe kontatzen du Jon Juaristik. INVERCOren (Inbertsio Kolektiboen eta Pentsio Fondoen Elkarte) arabera, fondoen 99an aurreko urteetan baino errentabilitate txikiagoak ematea espero da (batz

beste %4,5 inguru, 1998ko %8,5aren orde). Beraz, aurreikuspenen arabera, txerri ehiza ez da azken urteetan bezain oparoa izango. Bankuak eta aseguruak izan litezke, euroa dela eta ez dela, txerri hazle onenetako batzuk, baina hemengo kontseiluei kasu egin baino lehen, begira arren eskuinaldeko oharrari.

Bilboko indizea



Dibisen merkatua

	1 Euro
Dolarra (USD)	1,1743
Libra Esterlina	0,7076
100 Yen (Japonia)	1,3142

Bost indizeak

New York (Dow Jones)	9.462,84 (+%1,62)
Tokio (Nikkei)	13.431,14 (+%1,50)
Madrid (IBEX-35)	Jade gurea
Paris (CAC-40)	4.204,20 (+%2,17)
Londres (FTSE 100)	6.148,80 (+%3,56)
Frankfurt (DAX)	5.443,62 (+%3,48)
Milano (MIB)	Jade gurea

■ **TXERRI** ehizariak: informazioa azkar kudeatzen eta interpretatzen dago, gaur egun ere, Burtsan arrakasta izatearen kokka. Inbertsioegile handiek, profesionalak, beti dute abantaila txerri ehizarako eta dibertsifikaziorako.

■ **BCH** espainiarra eta Commerzbank alemaniarra dira nazioarteko banku-akordio bat martxan jartzearen adibide garbiretako bat.